

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Elebitasuna geroz eta finkatuago dago Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetan

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakitera eman dituen zenbakien arabera, 1994-95 ikasturterako Euskal Autonomi Elkarteko Haur Hezkuntzan, OHO/Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian egin diren matrikulazioen arabera, ikasle guztien % 62 pasatxo hizkuntza eredu euskaldunearan (D eredu) eta elebidunearan (B eredu) ari dira ikasten.

Txosten honek datu esanguratsuak dakartza:

- Jaiotze-tasa bajua dela eta, 90eko hamarkadari dagozkion urte hagetan Euskal Autonomi Elkarteko eskolek 63.000 ikasle baino gehiago galdu dituzte.
- A (dena gaztelaniaz irakatsi eta euskara ikasgai duena) eta X (oraindik euskararik gabe irakasten du) hizkuntza ereduak ere ia beste horrenbeste haur galdu dituzte bost urteotan: 62.000 ikasle, alegia.
- Eskola pribatuetan bizirik dirauen X hizkuntza eredu desagertzeko zorian dago. EAeko ikasle guztien % 1 baino ez du biltzen.
- Jaitsiera demografikoa eta guzti, hamarkada honetan gora egin duen hizkuntza eredu bakarra D eredu izan da.
- Esaniko irakasmilak

bere osoan hartuta, A eta X hizkuntza ereduak dira nagusi (%37). Bigarren D eredu dator (%34) eta hirugarren B eredu (%29).

- Probintziak hartuta,




Gipuzkoan (%88) eta Bizkaian (%51) eredu euskalduna eta elebiduna dira nagusi. Araban ikasleen % 45 ari da eredu hauetan.

- EAeko ikastetxeetako ikasleen %52 eskola pribatuetan ari dira ikasten. Publiko bihurtu ez diren ikastoletako ikasleak multzo honetan sartzen dira.

Argi dago, beraz, 90eko hamarkadaren lehen zati honek elebitasunaren finkapena dakarkigula esaniko irakasmiletara, Joera hau areagotu egingo da gainera, zeren 2 eta 3 urteko haurren %80 eredu euskaldun eta elebidunearan matrikulatu baitira aurten.

Ikasleen %62 eredu euskaldun eta elebidunetan dabil EAeko hizkuntza ereduaren arabera



Rosa Miren Pagola, ahozko euskararen aztertzaile

Rosa Miren Pagola, 45, doktore iruindarrak irakaskuntzan egin du beti lan. Irakasle ikasketak bukatu eta gero Iruñeko lehen ikastolan

irakatsi zuen bost urtez. Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatu zen, lehen promozioan. Harez gero unibertsitate horretan irakasten, du: Euskal Dialektologia, Euskal Testuak, Euskararen Historia eta Tipologia. Doktorego tesirako euskalki guztien azterketa fonetikoak egin zuen eta 1989an tesiaren zati bat argitaratu: Euskal Fonetika Nafarroan.

Eskolak emateaz gain, Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Institutuko zuzendaria da: euskararen inguruko ikerkuntza bultzatu, graduatuondoko

ikasketak, diplomaturak, erakusketak eta hitzaldiak antolatu, Entseugarrean aldirakaria eta testuliburuak argitaratu.... lan zabal

egiten du. Euskaltzain urgazlea dugu eta bi batzordetan, Dialektologia eta Ahoskera batzordean, ari da lanean. Bonaparte printzearen ondarea argitaratzen dihardu. Bizkaierari eta gipuzkerari dagozkien aleak kalean daude; lapurterazkoak irarkolan eta goi nafarreraz idatzitakoak urte bukaerarako izan daitezke prest. Testu hauek guztiak garrantzi



Rosa Miren Pagola

handikotzat jotzen ditu ikerlari eta dialektologoentzat. Inoiz baino euskal filologo hobek sortzen ari direla uste du, sasoi batean ez bezala, euskara eta euskararen inguruko ikasketak erabat sartu baitira unibertsitatean.

Zuzenbidea euskaraz Deustuan

Berrehun lagunetik gora - irakasleak, abokatuak, zenbait epaile eta notario, eta ikasleak batik bat- esku hartu zuten Deustuko Unibertsitatean antolatutako Zuzenbidea Euskaraz L Jardunaldietan.

Zuzenbide Fakultateak, Euskal Ikasketen Institutuak, Euskara Juridikoaren Mintegiak eta Zuzenbidean ikasle elkarteak antolatu dituzte jardunaldiok, Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean.

Hiru egunetan zehar, maiatzaren 11, 16 eta 17an, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruz eztabaidatu zen: foru saka, tronkalitatea, testamentuak eta oinordetza aztertu ziren, besteak beste.

Antolatzaileek jardunaldi hauetako hitzaldi guztiak argitaratzeko asmoa azaldu dute. Baita datorren urtean II. Jardunaldiak antolatzeko gogoia ere.

Gaixotasunen nazioarteko sailkapena euskaraz.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Osasunerako Mundu Erakundeak argitaratu ohi duen Gaixotasunen nazioarteko sailkapena lanaren lehen liburukia euskaraz argitaratzea erabaki du. Emaitzak berehalako eragina izan lezake osasun arloko hizkeraren finkapenean zein testu eta errotuluetan.

Microsoft Word 6.0, euskaraz. Ordenadorea erabili behar eta, euskaraz lan egin nahi duen orok laster izango du Microsoft etxearen Word 6.0 erabiltzeko aukera. Testu lanketarako programa horren euskaratze eta egokitze lanak hasiak dira etxe amerikarraren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako hitzarmenari esker. Microsoft munduko software-egilerik handiena da.

Kierkegaard eta Boezio euskaraz. Klasikoak argitaletxeak Kierkegaard-en Limurtzailearen egunkaria eta Boezioaren Filosofiaren kontsolamendua eman ditu argitara "Pentsamenduaren klasikoak" bilduman. Lehena Juan Mari Mendizabalek euskaratu du danieratik zuzenean. Bigarrena Boni Urkizuk, latinetik. Hauekin 20 dira argitaletxe honek euskaraz plazaratu dituen lan klasikoak.

Euskara lan munduan.

Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Elhuyar Kultur Elkarteak, 1991ko lankidetzak hitzarmenaren luzapena sinatu dute. Hitzarmen honen helburua lan munduan euskararen erabilera normaldu eta sustatzea da. Elhuyar elkarteak 13,5 milioi pezetako lanasmoa prestatu du 1994rako. Eusko Jaurlaritzak 8,8 milioi pta. ezarriko ditu. Foru aldundiek 4,7 milioi.

EHUK Hizkuntza Plangintzarako diplomatura eratu du.

Euskal Herriko Unibertsitateak Hizkuntza Plangintzarako graduatuondoko unibertsitate diplomatura antolatu du. Azaroaren 14tik uztailearen 5era luzatuko den ikastaroak HPIN, IVAP/HAEE eta HABE ditu babesle eta Eudel, EKB eta Udaletako Euskara Teknikarien Sarea laguntzaile.

Diplomaturaren helburua euskararen inguruan lan egiten duten teknikariei oinarritzko prestakuntza ematea da, profesional polibalenteagoak eta kualifikatuagoak bihur daitezten. Euskara teknikari lanetan dihardutenei (itzultzaile, euskara suspertzaile, euskara zerbitzuburu, irakasle, etab.) begira prestatu da. Baita unibertsitate ikasketak osatu nahi dituzten titulatuak aintzat hartuz ere.

Ikastaroaren ardura EHUKo Euskararako Errektoreordetzak izango du. Zuzendaria Koldo Zuazo irakaslea izango da eta bateragileak Ander Iturriotz eta Nekane Jausoro irakasleak.

Ikastaroaren egitarauak lau

atal izango ditu: lehen atalean argitze teorikoa (50 ordu) jorratuko da; bigarrenean plangintza, metodologia eta ebaluaketa (54 ordu); hirugarrenean hizkuntza plangintza Euskal Herrian (96 ordu); eta laugarrena praktikaldia izango da (50 ordu).

Ikastaroak 25 kreditu izango ditu guztira, 20 kreditu teoriari dagozkionak eta 5 kreditu praktikak egiteko. Eskolak Leioako campusean emango dira, astelehen eta asteazken arratsalde, lau orduz. Ezinbestekoa izango da eskoletara joatea. Ikastaroaren atal bakoitzean, bestalde, ebaluaketa egingo da.

Ikastaroaren kostua 75.000pta.koa da. Aurreinskripzio epea irailaren 19tik urriaren 7ra bitartean zabalduko da. Matrikulazio epea, berriz, urriaren 17tik 28ra. Izena emateko orriak Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako campusetan jaso daitezke.

Tfnoa.: (94) 464 77 00.

Clay Slate, Arizonako (EEBB) hizkuntzalari eta hezitzaile amerikarra Euskal Herrian izan da uztailean.

Navajo Community College-n navajo hizkuntza eta kultura lantzen dituzte, irakasleak prestatzeko.


Amaia Usabiaga, 29, filologo beasaindarrak Andoaingo Toponimia liburua prestatu du. Bi urte igaro ditu ahoz-ahozko elkarrizketak eta agiri zaharrak aztertzen Andoaingo toponimia lantzeko. Euskal Filologian lizentziatua EHUn, Beasaingo Udaleko euskara teknikaria da.

Nekane Jausoro, 32, irakasle oñatiarrak Motibazio sinbolikoa euskara ikasteko orduan ponentzia azaldu zuen taldean EHUn Udako Ikastaroetan. Soziologian lizentziatua Madrilgo Complutense Unibertsitatean, Gizarte Zientzietarako Teknika Aurreratuak ikasgaia irakasten du EHUKo Leioako campusean. Aurten irakurriko du doktorego tesia.

Argitalpenak

Hezkuntza -softwarearen bilduma

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak argitaratua. Eskoletan erabiltzen diren 409 programa informatikoren berri ematen du EIMA III (euskarazko hezkuntza-softwaregintza) programaren barruan sartzen den liburu honek. Urte biz behin argitaratu ohi da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:.....
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Erabiliraren baldintzak

G• Zeintzuk dira a euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak?

E• Garrantzitsuak izan arren, jarrerak ez dute berehalako eraginik hizkuntza jokabideetan. Eusko hiritar gehienak euskararen ezagutza eta erabilera sustatzearen alde daude. Gehiengo euskara hezkuntza sisteman, administrazio publikoan eta komunikabideetan areagotzearen alde dago. Baina horrek bakarrik ez dakar norbere hizkuntza jokabidearen aldaketarik. Hau da, elebidunek, euskaraz hitz egin dezaten, beharrezkoa da, lehenengo, solaskide denek edo ia denek euskaraz jakitea eta, bigarren, norberak euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egitea. Hirugarren baldintza euskarak toki bakoitzean duen bizitasun etnolinguistikoa da, bere ospe eta indarra alegia.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia

Ikais Bi, elebitasuna iparraldeko eskola publikoan

Ikas Bi 1986an sortu zen, Seaska ikastolen elkartearekin sare publikoan sartzeko ahaleginak porrot egin eta gero. Eskola publikoan ari ziren guraso eta irakasle talde batek sortu zuen, ez Seaskaren alternatiba izateko asmoz, haren osagarri gisa baizik. Urte hartan 184 ziren, lau ikastetxetan banatuta, irakaskuntza elebiduna jasotzen zuten ikasleak. 1994an, ostera, 3.261 ikasle eta 72 irakasleren lana koordinatzen du, 52 ikastetxetan.

Orain urtebete T'ardi Ikas Bik berak Iparraldeko eskola publikoetan agindutako galdeketa batean, galdetutako gurasoen % 69 irakaskuntzan eredu euskaldun eta elebidunaren alde agertzen ziren. Hala ere, gaur egun haur guztien % 12k baino ez du aukera hori. Tarte

handiegia, Ikas Biren ustez, dagoen eskaera eta ematen zaion erantzunaren artean.

Ikas Bik jarrera pragmatikoa hautatu du hezkuntza publikoaren euskalduntze aldera: informazioa zabaltzen du gurasoen artean, liburuak argitaratu eta, Brebet azterketaren kasuan gertatu den bezala, behar izanez gero, gobernu frantsesa auzitegietara eraman du, ikasle euskaldunen eskubideak onar daitezten.

Jarrera honek estuasun ekonomikoak ekarri dizkie zenbaitetan. Hori dela eta, datozen urteetan euren egoera ekonomikoa finkatu nahi dute, euskal testugintzari (Historia eta Geografia irakasteko testuliburu bilduma prestatua dute) bultzada handia eman eta Azkaraten duten aterpetxean zerbitzu pedagogiko aberatsagoak eskaini.

✓ Kontutan hartzeko

• **Euskaltzaindiaren 75. urteurrena.** Irailaren 21ean Gipuzkoako Foru Aldundian amaiera emango zaie Euskaltzaindia osatu zeneko 75. urteurrenaren ospakizunei. Eguneko gonbidatu berezia: euskal komunikabideak.

• **Hezkuntza eleaniztuna** aztertuko duten 11. Nazioarteko Jardunaldiak egingo dira Gasteizen

azaroaren 3an eta 4an, Gaztelueta Fundazioak antolatutako. Tfnoak.: (94) 463 30 00 - 464 90 45.

• **IX Literatur Lehiaketa euskaraz, egile berrientzat.** Iruñeko Udalak antolatuta, Nafarroan bizi diren idazle berrientzat. Olerkia, narrazio laburra eta bertso paperak onartuko dira. 900.000 pta. saritan.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA

